



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400012062015

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga,
Sozietateen gaineko Zerga eta Zergadun Ez Egoiliarren
Errentaren gaineko Zerga

Errenta-esleipenaren araubideko erakundeak

Urteko aitorten informatiboa

184

Organismo Kodea:

75 03 6

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

EKITALDIA

AITORPEN OSAGARRIA

ORDEZKO AITORPENA

IFZ

Aitortzailearen izendura edo sozietatearen izena

HARREMANETARAKO PERTSONA

Deiturak eta izena

Telefonoa

ORDEZKARIA

IFZ

Deiturak eta izena, izendura edo sozietatearen izena

ERAKUNDE MOTA

A. Egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten errenta-esleipenaren araubideko erakundeak

Erakunde motaren gakoa.....

Jarduera nagusiaren gakoa.....

B. Atzerrian eratu diren errenta-esleipenaren araubideko erakundeak

Kide egoiliarren errenta %..

Erakunde motaren gakoa.....

Jarduera nagusiaren gakoa...

Herriaren kodea.....

C. Sozietateen gaineko zergan tributatzea.....

D. Eragiketen bolumenaren zenbatekoa.....

AITORPENAREN LABURPENA

Banakakoa

Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen guztirako kopurua

Taldekako era

Erakunde aitortzaileak, guztira

Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen guztirako kopurua

DATA ETA SINADURA

DATA :

Sin:

Kargua edo enplegua:

Zergadunaren arreta zerbitzua:

* Telefonoz : 902 100 040

* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

184 EREDUA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Eredu hau idazmakinez edo bolaluz bete daiteke; bolaluz idatziz gero, gainazal gogor baten gainean eta letra handiz egin behar da. Diru kopuru guztiak eurotan adierazi behar dira.

184 ereduak atal hauek ditu: "laburpen-orria", "erakundeak lortutako errentak aitortzeko orriak" eta "bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen zerrendak jartzeko orriak".

NOLA BETE LABURPEN-ORRIA

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA

Ekitaldia. aitortzen den ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Aitorpen osagarria. Jarri X bat aitorpen hau aurkezteko arrazoia aurreko batean adierazi ez diren datuak sartzea bada.

Ordezko aitorpena. Jarri X bat aurkezten den aitorpenak aurreko bat ordeztzen duenean.

IFZ eta izendura edo sozietatearen izena: Erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko eta izen osoa jarriko da.

Harremanetarako pertsona: Harremanetarako pertsonaren datuak jasoko dira atal honetan.

Ordezkarria: Errenta-esleipenaren araubideko erakundearen ordezkariaren datuak jasoko dira atal honetan.

ERAKUNDE MOTA

A) Egoitza Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten errenta-esleipenaren araubideko erakundeak

Erakunde motaren gakoa: Erakunde motari dagokion zenbakizko gakoa jarriko da, zerrenda honen arabera:

1. Sozietate zibila
2. Ondasun erkidegoa
3. Banatu gabeko herentzia
4. Jabeen erkidegoa
5. Beste batzuk

Jarduera nagusiaren gakoa: Erakundeak egiten duen jarduera nagusiari dagokion zenbakizko gakoa jarriko da:

1. Enpresa-jarduera
2. Lanbide-jarduera
3. Ondasun higiezinaren edukitza eta administrazioa
4. Balore edo finantza-aktiboen edukitza eta administrazioa
5. Beste batzuk

B) Atzerrian eratu diren errenta-esleipenaren araubideko erakundeak

Erakunde motaren gakoa: Erakunde motari dagokion zenbakizko gakoa jarriko da, zerrenda honen arabera:

1. Korporazio, elkarte edo erakunde, nortasun juridiko propioa duena.
2. Korporazio edo erakunde independientea, nortasun juridiko propiorik ez duena.
3. Bi pertsonak edo gehiagok batera dituzten ondasunen multzo unitarioa, nortasun juridiko propiorik ez duena
4. Beste batzuk

Jarduera nagusiaren gako: Entitate aitortzailearen jarduera edo xede nagusia adieraziko da:

- A. Jarduera enpresarial bat egitea (produktzioa, erauzketa, industria, merkataritza, ondasun edo produktu banaketa...)
- B. Jarduera profesional bat egitea (aholkularitza, kontsuloretza, bitartekaritza, jarduera artistikoa...)

Herriaren kodea: Erakundeak helbidea duen herrialde edo lurraldeari dagozkion bi digituak jarriko dira. Herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda 1070/2011 Foru Arauaren III. eranskinean daude.

Kide egoiliarren errenta %: Entitateko kide egoiliarrei dagokien errentaren portzentajea jarriko da.

C) Sozietateen gaineko zergan tributatzea

Errenta-esleipenaren araubideko erakundearen kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira, lauki honetan X jarriko da.

D) Eragiketen bolumenaren zenbatekoa

Ondorio hauetarako, erakundeak egiten dituen jarduera ekonomikoetako eragiketen bolumena jardueran ondasunak emanez eta zerbitzuak eginez lortutako kontraprestazioen gutzizko zenbatekoa da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Baliokidetzaren Errekargua kenduta.

AITORPENEN DATUEN LABURPENA

Banakako edo Taldekako era

Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideen erregistroen gutzirako kopurua : Aitorpenean sartutako bazkide, jaraunsle, erkide edo partaide guztientzat oro har, esleitu beharreko etekin, kenkari edo atxikipenen gako edo azpigakoetatik, kopururen bat jarri zaienak gutzira zenbat diren adieraziko da (ikus, beheago, bazkide,jaraunsle, erkide edo partaideen zerrendaren orria betetzeko jarraibideak).

Erakunde aitortzaileak, gutzira: Taldeko euskarrian aitorpena duten erakundeen kopurua adierazi behar da.

DATA ETA SINADURA

Biak jarriko dira, baita sinatzailearen izen-abizenak eta kargu edo enplegua ere. Errenta-esleipenaren araubideko erakundearen ordezkaria edo entitateko edozein kide izango da sinatzailea.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400012062015

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen
gaineko Zerga eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren
gaineko Zerga**

**Errenta- esleipenaren araubideko erakundeak
Urteko aitorten informatiboa**

Erakundeak lortutako errentak (I)

184

Organismo Kodea:
75 03 6

Erakundearen IFZ	Izendura edo sozietatearen izena	Ekitaldia
------------------	----------------------------------	-----------

A Higigarrien kapitalaren etekinak

Sarrera osoak	Gastuak	Errenta esleipengarria	Integratu gabekoen %	Integratu gabekoen % aplikatzen den sarrera osoen zenbatekoa
Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen direnak PFEZko FAre arabera				
Oinarri ezargarri orokorrean integratzen direnak PFEZko FAre arabera				

C Higiezinen kapitalaren etekinak

Higiez kok.	Erref. katastrala/ Finka zkia.	Sarrera osoak	Gastuak	Errenta esleipengarria	Integratu gabekoen %	Integratu gabekoen % aplikatzen den sarrera osoen zenbatekoa
Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen direnak PFEZko FAre arabera						
Oinarri ezargarri orokorrean integratzen direnak PFEZko FAre arabera						

D Jarduera ekonomikoaren etekinak

Egindako jarduerak	1. jarduera	2. jarduera
Etekinak zehazteko metodoa		
Jarduera mota. Gakoa		
JEZko epigrafea		
Sarrera osoak		
Gastuak:		
Langileria gastuak		
Hirugarrenei ondasunak eta zerbitzuak erostea		
Fiskalki kengarriak diren zergak eta gastu finantziarioak		
Fiskalki kengarriak diren bestelako gastuak		
Aurrezpenaren etekin esleipengarria		
Integratu gabekoen %		
2 edo 5 urte bainoaldi luzeagoan sortutako etekinen zenbatekoa		

R Jarduera ekonomikoetako lortutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak

	Irabazi egozgarriak	Galera egozgarriak

F Ondare elementuen eskualdaketan ondoriozkoak ez diren ondare irabaziak eta galerak

	Irabazi egozgarriak	Galera egozgarriak

G Ondare elementuen eskualdaketan ondoriozko ondare irabaziak eta galerak

	Irabazi egozgarriak	Galera egozgarriak

Zergadunaren arreta zerbitzua:

* Telefonoz : 902 100 040

* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK (I)

1. Aitorpeneko orrialde guztietan erakunde aitortzailearen identifikazio-datu hauek agertu behar dira:
 - IFZ: erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jarriko da.
 - Izena / sozietatearen izena: erakundearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.
 - Ekitaldia: aitorpena zein ekitaldiri dagokion adieraziko da.
2. Ereduan inprimatutako tarteak nahiko ez badira eskatutako datu guztiak jartzeko, formatu bereko orri gehiago erabili ahal izango dira. Jatorrizko orriaren fotokopiak erabil daitezke.
3. Kopuru negatiboen aurrean (-) zeinua jarriko da, baina inoiz ere ez parentesi artean.

A Higigarrien kapitalaren etekinak

- **Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Sarrera osoak. Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta esleipengarría. Atal honetan aipatutako higigarrien kapitalaren etekin gisa esleitu daitezkeen errentaren guztirako zenbatekoa bat etorri behar da Sarrera osoak eremuan ezarritako kopuruarekin.

- **Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Sarrera osoak. Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higigarrien kapitalaren etekin osoen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

Gastuak. Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinetatik kengarri diren gastuen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

Errenta esleipengarría. Sarrera osoei kengarriak diren gastuak kendu ondoren lortutako emaitza da.

Integratu gabekoen %. PFEZi buruzko araudian ezartzen diren integratu gabekoen ehunekoak adierazi behar dira. Hona horien laburpena:

1. Higigarrien kapitalaren etekinak bi urte bainoaldi luzeagoan sortu badira: %40.
2. Etekinak bost urte bainoaldi luzeagoan sortu badira edo arau bidez denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen badira: %50.

Integratu gabekoen ehunekoak aplikatzen zaien sarrera osoen zenbatekoa. Aurreko atalean aipatutako integratu gabekoen ehunekoak aplikatu behar zaizkien sarrera osoak adierazi behar dira.

C Higiezinaren kapitalaren etekinak

- **Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higiezinaren kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Higiezinaren kokapena: etekina eman duen higiezinari dagokion gakoa jarri behar da, gako hauen artetik:

1. Lurralde espainiarreko edozein tokitan, salbu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, kokatuta dagoen higiezina, katastro erreferentzia duena.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ondasun higiezina, finka zenbakia edo erreferentzia katastrala duena.
3. Nafarroako Foru Erkidegoan kokatutako higiezina, katastro erreferentzia duena.
4. Aurreko egoeretako edozeinetan sartutako higiezina, baina finka zenbakirik edo erreferentzia katastralik gabea.
5. Atzerrian kokatutako higiezina.

Finka zenbakia edo katastro erreferentzia: hemen jarri behar da kapital higiezinaren etekinak ematen dituen higiezinaren finka zenbakia (zenbaki finkoa ere esaten zaio) edo katastro erreferentzia.

Sarrera osoak. Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higiezinaren kapitalaren etekin osoen zenbatekoa adierazi behar da, higiezin bakoitzari dagokiona.

Gastuak. PFEZi buruzko araudian ezarritako higiezinaren kapitalaren etekinetatik kengarri diren gastuen zenbatekoa, adierazi behar da, higiezin bakoitzari dagokiona, sarrerei aplikatu beharreko hoberia ere kontuan edukita.

Errenta esleipengarría. Sarrera osoei kengarriak diren gastuak kendu ondoren lortutako emaitza da.

- **Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higiezinaren kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Higiezinaren kokapena: etekina eman duen higiezinari dagokion gakoa jarri behar da, gako hauen artetik:

1. Lurralde espainiarreko edozein tokitan, salbu Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, kokatuta dagoen higiezina, katastro erreferentzia duena.
2. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ondasun higiezina, finka zenbakia edo erreferentzia katastrala duena.
3. Nafarroako Foru Erkidegoan kokatutako higiezina, katastro erreferentzia duena.
4. Aurreko egoeretako edozeinetan sartutako higiezina, baina finka zenbakirik edo erreferentzia katastralik gabea.
5. Atzerrian kokatutako higiezina.

Finka zenbakia edo katastro erreferentzia: hemen jarri behar da kapital higiezinaren etekinak ematen dituen higiezinaren finka zenbakia (zenbaki finkoa ere esaten zaio) edo katastro erreferentzia.

Sarrera osoak. Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higiezin kapitalaren etekin osoen zenbatekoa adierazi behar da, higiezin bakoitzari dagokiona.

Gastuak. PFEZi buruzko araudian ezarritako higiezin kapitalaren etekinetatik kengarri diren gastuen zenbatekoa adierazi behar da, higiezin bakoitzari dagokiona.

Errenta esleipengarría. Sarrera osoei kengarriak diren gastuak kendu ondoren lortutako emaitza da.

Integratu gabekoen %. PFEZi buruzko araudian ezartzen diren integratu gabekoen ehunekoak adierazi behar dira. Hona horien laburpena:

1. Higiezin kapitalaren etekinak bi urte baino aldi luzeagoan sortu badira: %40.
2. Etekinak bost urte baino aldi luzeagoan sortu badira edo arau bidez denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen badira: %50.

Integratu gabekoen ehunekoak aplikatzen zaien sarrera osoen zenbatekoa. Aurreko atalean aipatutako integratu gabekoen ehunekoak aplikatu behar zaizkien sarrera osoak adierazi behar dira.

D Jarduera ekonomikoaren etekinak

Atal honetan jarriko dira errenta-esleipenaren araubideko erakundeak egindako jarduera ekonomikoaren etekinak.

Etekinak zehazteko metodoa. Errenta-esleipenaren araubideko sozietatearen jarduera ekonomikoaren etekinak zehazteko metodoa zein den adieraziko da atal honetan. Horretarako, zenbakizko bi gako hauetako bat jarriko da, kasuan kasukoa:

Gakoa

- 1 Zuzeneko zenbatespena, modalitate arrunta
- 2 Zuzeneko zenbatespena, modalitate erraztua

Jarduera mota. Gakoa. Aitorpen-inprimakiko zutabeetan agertuko diren jardueren mota edo izaera adieraziko da lauki honetan. Horretarako, ondoko bi gakoetatik kasu bakoitzean behar dena jarriko da:

Gakoa

- 1 Merkataritzako enpresa-jarduerak
- 2 Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak
- 3 Merkataritzaz kanpoko beste enpresa-jarduera batzuk
- 4 Artearen edo kirolaren arloko lanbide-jarduerak
- 5 Gainerako lanbide-jarduerak

JEZko talde edo epigrafea. Erakundeak egiten duen jarduera Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergari dagokionez zein talde edo epigrafetan sailkatuta dagoen adieraziko da.

Sarrera osoak. Errenta-esleipenaren araubideko erakundeak kasuan kasuko jarduera ekonomikoaren bidez lortutako sarrera osoen zenbatekoa jarriko da. Bazkide, jaraunse, erkide edo partaideetako bakoitzak jarduerarako aldi baterako ezintasunaren zioz hartutako prestazio eta kopuruak atal honetan sartuko dira.

Gastuak: hemen jarri behar dira jarduera ekonomikoaren etekinetatik fiskalki kengarriak diren gastuak, atal hauetan banakatuta:

- Langileria gastuak:** soldatak, enpresaren kargura doazen Gizarte Segurantzako gastuak eta langileriako beste gastu batzuk.
- Hirugarrenen ondasunak eta zerbitzuak erostea:** kontzeptu hauetan ordaindutako zenbatekoa: ustiapen kontsumoak, errentamenduak eta kanonak, konponketak eta artapena, zerbitzu profesional independenteak eta kanpoko zerbitzuen beste gastu batzuk.
- Fiskalki kengarriak diren zergak eta gastu finantziarioak:** fiskalki kengarriak diren tributuoak eta finantza gastuak.
- Fiskalki kengarriak diren bestelako gastuak:** hemen jarri behar da amortizazioaren aldeko zuzkiduretatik, narriadura galeretatik eta aurreko ataletan sartu gabeko kontzeptuengatik fiskalki kengarriak diren beste gastu batzuetatik kengarria den zenbatekoa. Hala badagokio, zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan jasotako oroharreko gastua sartuko da, beste gastu batzuen ordean.

Aurretiazko etekin esleipengarría. Sarrera osoen eta gastu kengarrien arteko kendura jarriko da.

Aurretiazko etekin esleipengarría = Sarrera osoak - Gastuak

2 edo 5 urte baino aldi luzeagoan sortutako etekinaren zenbatekoa. PFEZko Foru Arauaren arabera, integratu gabekoen portzentajea aplikatu ahal zaion etekin garbien zatia zenbatekoa jarriko da. Hona horien laburpena:

1. Jarduera ekonomikoaren etekin garbia bi urte baino aldi luzeagoan sortu badira: %40.
2. Etekinak bost urte baino aldi luzeagoan sortu badira edo arau bidez denboran zehar modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen badira: %50.

R Jarduera ekonomikoaren lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak

Atal honetan aitortuko da jarduera ekonomikoaren multzoari lotutako ondare elementuen ondare irabazi eta galeren zenbateko osoa, eta horiek erakundearen jarduera ekonomikoaren etekin arruntari batuko edo kenduko zaizkio.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritako moduan kalkulatu da zenbatekoa.

Irabazi / galera egozgarriak. Ekitaldian esleitu daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarriko da.

F Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren ondare irabaziak eta galerak

Epigrafe honetan ekitaldian egozten diren ondare irabazi eta galeretatik ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren guztirako zenbatekoa aitortu behar da.

Irabazi / galera egozgarriak. Ekitaldian esleitu daitezkeen ondare irabazi eta galeren zenbatekoa jarriko da.

G Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozko ondare irabaziak eta galerak

Epigrafe honetan PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera ekitaldian egozten diren ondare irabazi eta galeretatik ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak diren guztirako zenbatekoa aitortu behar da.

Irabazi / galera egozgarriak. Ekitaldian esleitu daitezkeen ondare irabazi/galeraren zatia jarriko da.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400012062015

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen
gaineko Zerga eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren
gaineko Zerga**

**Errenta- esleipenaren araubideko erakundeak
Urteko aitorten informatiboa**

Erakundeak lortutako errentak (II)

184

Organismo Kodea:

75 03 6

Erakundearen IFZ	Izendura edo sozietatearen izena	Ekitaldia
------------------	----------------------------------	-----------

H Errenta esleipengarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak

Kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunak diren erakundeak (establezimendu iraunkorra)

Kontabilitateko emaitza

Doikuntzak

Errenta esleipengarriak

Gehikuntzak	Gutxipenak

I PFEZ Foru Arauko kenkariak

Kenkariaren oinarria / zenbatekoa

- 02 3/2004 Foru Arauko kenkariak
- 04 Jarduera ekonomikoen kenkariak
- 05 Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria (atzerrian ordaindutako kopurua)
- 06 Empresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik kenkaria
- 09 Beste kenkari batzuk

J SZ Foru Arauko kenkariak

Kenkariaren oinarria / zenbatekoa

- 01 Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria
- 02 Jardueretan egindako inbertsioengatik kenkariak
- 03 3/2004 Foru Arauko kenkariak
- 04 Beste kenkari batzuk

K Erakundeak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak

- 01 Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura
- 02 Hiriko higiezinen errentamenduen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura (jarduera ekonomikoa izan edo ez)
- 03 Jarduera ekonomikoen etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura
- 04 Ondare irabazien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura
- 05 Beste kontzeptu batzuen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura

Zergadunaren arreta zerbitzua:

* Telefonoz : 902 100 040

* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

ERAKUNDEAK LORTUTAKO ERRENTAK (II)

H Errenta esleipengarria Sozietateen gaineko Zergaren arabera zehazten duten kideak dituzten erakundeak

Errenta-esleipenaren araubideko erakundeko kide guztiak edo haietako batzuk Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira, bazkide, jaraunse edo partaide horiei esleitu beharreko errenta Sozietateen gaineko Zergaren arauari jarraituz zehaztuko da.

Kontabilitateko emaitza. Ekitaldiaren emaitza jarri behar da, erakundearen urteko kontuetan ageri dena. Urteko kontuak merkataritzako eta kontabilitateko arau aplikagarrien arabera egin behar dira.

Doikuntzak: Gehikuntzak/ Gutxipenak. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta zergen arloko gainerako arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera kontabilitateko emaitzari batu edo kendu behar zaizkion zenbatekoak jarriko dira, erakundeak ekitaldian sorrarazitako errenta fiskala zehazteko.

Errenta esleipengarria. Erakundeko kideei ekitaldian esleitu beharreko errentaren zenbatekoa jarriko da.

Errenta esleipengarria = Kontabilitateko emaitza + Gehikuntzak – Gutxipenak

I PFEZi buruzko Foru Arauko kenkariak

PFEZi buruzko Foru Arauan aurreikusitako kontzepturen bat dela-eta kenkariaren oinarri den zenbatekoa jarriko da.

02 3/2004 Foru Arauko kenkariak: Emariaren balioari dagokion zenbatekoa jarriko da, PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako moduan kalkulaturik.

04 Jarduera ekonomikoaren kenkariak: Ekitaldian egin eta PFEZi buruzko Foru Arauan aurreikusitako kenkariren baterako eskubidea ematen duten inbertsio edo gastuen zenbatekoa jarriko da.

05 Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: Erakundearen errenten artean atzerrian lortu eta zergapetutako etekin edo ondare irabazirik egonez gero, errenta horien gaineko kargaren ondorioz PFEZi buruzko Foru Arauan aurreikusitako moduan ordaindutako zenbatekoa jarriko da.

06 Kenkaria enpresa berri edo sortu berrietan inbertitzeagatik: hemen jarri behar dira enpresa berrietan edo sortu berrietan PFEZaren araudiari jarraituz kenkarirako eskubidea ematen duten akzio edo partaidetzak harpidetzeagatik ordaindutako kopuruak.

09 Beste kenkari batzuk: Aurreko ataletan jaso ez diren balizko beste kenkari batzuen oinarria zehaztu behar da, PFEZi buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorritik.

J Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko kenkariak

Errenta-esleipenaren erakundeko atal hau bete beharko dute baldin eta bazkide, jaraunse edo partaideren bat Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun bada.

01 Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: Erakundeak atzerrian zergapetutako errentak jaso baditu, gako honetan jarriko da errenta horien gaineko kargaren zioz ordaindutako zenbatekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurreikusitako moduan.

Halaber, erakundearen errenten artean sozietate ez-egoiliarren batek ordaindutako mozkinetako partaidetzak edo dibidenduak konputatzen direnean, gako honetan jarriko da erakundeak benetan ordaindutako zergaren zenbatekoa, dibidendua zein mozkinen kargura ordaindu den, haiexei dagokiena.

02 Jardueretan egindako inbertsioengatik kenkariak: Gako honetan jarriko da kuotan kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duten jardueretan inbertitu edo gastatutako kopuruen guztizko zenbatekoa, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera.

03 3/2004 Foru Arauko kenkariak: Irabazteko xederik gabeko erakundearen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauko III. tituluan aurreikusi bezala mezenasgorako zerga pizgarrien araubidea aplikatu ahal zaien irabazteko xederik gabeko erakundeei egindako emariaren zenbatekoa jarriko da. Gauzazko emari, dohaintza edo ekarpenak egin badira, emariaren edo ekarpenaren balioa jarriko da. Goian aipatutako arauan ezarritako balorazio arauak erabiliko dira balioa kalkulatzeko.

04 Beste kenkari batzuk: Aurreko gakoetan aipatutakoez gainera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta beste edozein arau aplikagarrian xedatutakoaren arabera kuotan kenkaria izateko eskubidea ematen duten gainerako inbertsio edo gastuen zenbatekoa jarriko da gako honetan.

K Erakundeak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoak jarriko dira, aitortpenaren epean errenta- esleipenaren araubideko erakundeak halakorik izan badu.

01 Higigarrien kapitalaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura: Higigarrien kapitalak ekitaldian sortutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoa jarriko da.

02 Hiriko higiezinaren errentamenduen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura (errentamendua jarduera ekonomikoa izan zein ez): Lauki honetan jarriko da hiriko higiezinaren errentamenduen ekitaldian ekarritako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoa. Berdin da etekin horiek higiezinaren kapitaletik sortuak izan nahiz jarduera ekonomikoetatik sortuak izan.

03 Jarduera ekonomikoaren etekinen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura: Jarduera ekonomikoetatik ekitaldian ateratzen diren etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoa jarriko da, hiriko higiezinaren errentamenduen ondoriozko atxikipenak eta konturako sarrerak izan ezik, hauen zenbatekoa aurreko laukian jarri behar baita.

04 Ondare irabazien gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura: Talde inbertsioko erakundeetako partaidetzen nahiz akzioen eskualdaketa edo berreskurapena dela-eta ekitaldian lortu diren ondare irabazien eta joko, zozketa edo ausazko konbinazioetan parte hartuta lortutakoaren gainean egindako atxikipen eta konturako sarreraren guztizko zenbatekoa jarriko da.

05 Beste kontzeptu batzuen gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren batura: Hemen jarriko da erakundeari aplikatutako gainerako atxikipen edo konturako sarreraren zenbatekoa, aurreko epigrafeetan jaso ez dena.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
8400012062015

**Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen
gaineko Zerga eta Zergadun Ez Egoiliarren Errentaren
gaineko Zerga**

**Errenta- esleipenaren araubideko erakundeak
Urteko aitorten informatiboa**

Bazkide, jaraunslle, erkide edo partaideen zerrenda

184

Organismo Kodea:

75 03 6

Erakundearen IFZ	izendura edo sozietatearen izena	Ekitaldia
------------------	----------------------------------	-----------

Erakundearen kidearen identifikazioa

IFZ	Ordezkararen IFZ	Deiturak eta izena edo sozietatearen izena		Porb.K.	Herriald
Partaide gakoa	Partaidetzaren %	Urtean kide izan zaren egunen kopura		Abenduaren 31n erakundearen kidea izan bazara, jarri X	
Partaidetzaren izaera	Jarduera benetan egitea	Bai	Ez	Jarritako kapitala:	Eslaiipenaren %

Etekinak, kenkariak eta atxikipenak

A	Higigarrien kapitalaren etekinak				
Aurrezpenaren oinarri ezagarrarian integratzen direnak PFEZko FAREN arabera		Etekinaren zenbatekoa			
Oinarri ezagarrari orokorrean integratzen direnak PFEZko FAREN arabera					
Etekinaren zenbatekoa		Integratu gabeko kopurua			
C	Higiezinen kapitalaren etekinak				
Aurrezpenaren oinarri ezagarrarian integratzen direnak PFEZko FAREN arabera		Etekinaren zenbatekoa			
Oinarri ezagarrari orokorrean integratzen direnak PFEZko FAREN arabera					
Etekinaren zenbatekoa		Integratu gabeko kopurua			
D	Jarduera ekonomikoen etekinak				
Etekinaren zenbatekoa		Integratu gabeko kopurua			
Higigarrien kapitalaren etekinaren zenbatekoa (erakundearen kideak jarduera egiten ez duenean soilik bete behar da)					
R	Jarduera ekonomikoei lotutako ondasunen ondare irabaziak eta galerak				
Irabaziaren zenbatekoa		Galeraren zenbatekoa			
F	Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren ondare irabaziak eta galerak				
Irabaziaren zenbatekoa		Galeraren zenbatekoa			
G	Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozko ondare irabaziak eta galerak				
Irabaziaren zenbatekoa		Galeraren zenbatekoa			
S	Emitza kontablea				
Errenta esleipengarria					
I/J	Kenkariak	Jarri I edo J gakoa <input type="checkbox"/>	I gakoa: PFEZko kenkaria J gakoa: SZko kenkaria	K	Atxikipenak eta kontura egindako sarrerak
01. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		01. Higigarrien kapitalaren etekinengatik. Zenbatekoa			
02. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		02. Hiriko higiezinen errentamenduengatik. Zenbatekoa			
03. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		03. Jarduera ekonomikoen etekinengatik. Zenbatekoa			
04. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		04. Ondare irabaziengatik. Zenbatekoa			
05. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa		05. Beste kontzeptu batzuenengatik. Zenbatekoa			
06. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa					
09. Kenkariaren oinarria / zenbatekoa					

Zergadunaren arreta zerbitzua:

* Telefonoz : 902 100 040

* Internet: www.gipuzkoa.eus/ogasuna

BAZKIDE, JARAUNSLA, ERKIDE edo PARTAIDEEN ZERRENDA

Erakundeko kidearen identifikazioa

Erakundeko kidearen IFZ. Errenta-esleipenaren araubideko erakundeko kide den bazkide, jaraunsla, erkide edo partaidearen identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da.

Ordezkarri fiskalaren IFZ. Erakundeko kideren batek adingabekoa izan eta IFZrik ez badu, "Ordezkarri fiskalaren IFZ" laukia beteko da. Bertan jarriko da adingabekoaren legezko ordezkari den guraso edo tutorearen IFZ.

Errenta-esleipenaren araubideko erakundeko kideren bat Espainiako lurraldeko egoiliarra ez bada, haren ordezkari fiskalaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarriko da, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko araudian eta zergen arloko beste arau batzuetan ezarritakoarekin bat.

Deiturak eta izena/sozietatearen izena. Pertsona fisikoaren lehenengo deitura, bigarren deitura eta izen osoa jarriko dira. Erakundearen izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.

Probintziaren kodea. Erakundeko kidearen helbidearen probintziari edo, hala denean, hiri autonomoari dagozkion zenbakizko bi digituak jarriko dira, jarraian datorren zerrenda honen arabera:

Probintzia	kodea	Probintzia	kodea	Probintzia	kodea	Probintzia	kodea
Araba	01	Ciudad Real	13	Lugo	27	Sevilla	41
Albacete	02	Kordoba	14	Madril	28	Soria	4
Alacant	03	Coruña, A	15	Malaga	29	Tarragona	43
Almería	04	Cuenca	16	Melilla	52	Teruel	44
Asturias	33	Girona	17	Murtzia	30	Toledo	45
Ávila	05	Granada	18	Nafarroa	31	Valentzia	46
Badajoz	06	Guadalajara	19	Ourense	32	Valladolid	47
Bartzelona	08	Gipuzkoa	20	Palentzia	34	Bizkaia	48
Burgos	09	Huelva	21	Palmas, Las	35	Zamora	49
Cáceres	10	Huesca	22	Pontevedra	36	Zaragoza	50
Cádiz	11	Illes Balears	07	Errioxa	26	Ez-egoiliarrak	99
Kantabria	39	Jaen	23	Salamanca	37		
Castello	12	Leon	24	S.C. Tenerife	38		
Ceuta	51	Lleida	25	Segovia	40		

Herrialdearen gako. Erakundeko kideak helbidea duen herrialde edo lurraldeari dagozkion bi digituak jarriko dira. Herrialde eta lurraldeen kodeen zerrenda 1070/2011 Foru Arauaren III. eranskinean daude.

Partaide motaren gako. Gako hauetako bat jarri behar da:

1. Egoiliarra
2. Establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarra
3. Establezimendu iraunkorra duen ez-egoiliarra

Errenta-esleipenaren araubideko erakundeko kideak abenduaren 31n erakundeko kide izaten jarraitzen badu, "X" jarriko da lauki egokian.

Beti ere, erakundeko kide urteko zenbat egunetan izan den adieraziko da lauki egokian.

Partaidetza portzentajea. Erakundeko partaide, bazkide, jaraunsla edo erkideari dagokion partaidetza portzentajea jarriko da. Portzentaje hori zenbaki osoa ez bada, lau hamartarrekin eman behar da.

Partaidetzaren izaera. PFEZI buruzko Foru Arauan ezarritakoa dela bide, jarduera ekonomikoaren etekinak erakundeko partaide, bazkide, jaraunsla edo erkideei esleituak zaizkie baldin eta ohituraz, berenez eta zuzenean esku hartzen badute jarduerari lotutako ekoizbideen eta giza baliabideen norbere konturako antolamenduan.

- Jarduera benetan egiten duten bazkide, jaraunsla, erkide edo partaideak badira, "Jarduera benetan egitea" eremuko BAI laukian X jarriko da.

- Jarduera benetan egiten ez duten bazkide, jaraunsla, erkide edo partaideak badira, "Jarduera benetan egitea" eremuko EZ laukian X jarriko da.

Jarritako kapitala: Jarduera benetan egiten ez duen bazkide, erkide edo partaideak bada entitatean jarri duen kapitalaren kopurua jarri beharko du.

Esleipenaren portzentajea:

Erakundeko kide guztiak benetan egiten badute jarduera, aurretik adierazitako partaidetza portzentajea bera izango da esleipen portzentajea.

Erakundeko kideren batek jarduera benetan egiten ez badu, esleipenaren portzentajea kalkulatu da jarduera benetan egiten ez duen bazkideari emandako zenbatekoa kapital higigarri gisa eta beste bazkide, jaraunsla, erkide edo partaideei emaitzen banaketan dagoen zenbatekoa kontutan izanda.

Etekinak, kenkariak eta atxikipenak

1. Bazkide, erkide edo partaideak erakunde bateko kide direnean eta erakunde horretako kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) zergadun badira, S atala beteko da, bai eta I/J eta K atalak ere, hala behar denean.
2. Bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideak 365 egun bainoaldi laburragoan izan bada erakunde kide, atal guztietan (A, C, D, R, F, G, H, I/J, K) jarri beharreko zenbatekoak zehazteko, egutegiko urtean erakunde kide izan den egunen kopuruaren arabera proportzioa kalkulatu da, erakundearen alta edo baxa gertatu denean izan ezik.

A Higigarrien kapitalaren etekinak

- **Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Etekinaren zenbatekoa. PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako higigarrien kapitalaren etekin gisa errenta-esleipenaren araubidean dagoen erakunde kideari esleitu dakioken errentaren zenbatekoa adierazi behar da.

- **Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higigarrien kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Etekinaren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako higigarrien kapitalaren etekin gisa esleitu ahal zaion errentaren zenbatekoa adierazi behar da (sarrerak ken gastu kengarriak, halakorik egonez gero).

Integratu gabeko kopurua. Erakunde kidea PFEZen zergaduna izanez gero (kasu honexetan soilik), baldin eta higigarrien kapitalaren etekinen artean PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu ahal zaizkion etekinen bat sartu bada, integratu behar ez diren sarrera gordinen zenbatekoa artikuluko horren arabera kalkulatu behar da.

C Higiezinaren kapitalaren etekinak

- **Aurrezpenaren oinarri ezargarrian integratzen diren higiezinaren kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Etekinaren zenbatekoa. PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako higiezinaren kapitalaren etekin gisa errenta-esleipenaren araubidean dagoen erakunde kideari esleitu dakioken errentaren zenbatekoa adierazi behar da.

- **Oinarri ezargarri orokorrean integratzen diren higiezinaren kapitalaren etekinak PFEZren arabera.**

Etekinaren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako higiezinaren kapitalaren etekin gisa esleitu ahal zaion errentaren zenbatekoa adierazi behar da (sarrerak ken gastu kengarriak, halakorik egonez gero).

Integratu gabeko kopurua. Erakunde kidea PFEZen zergaduna izanez gero (kasu honexetan soilik), baldin eta higiezinaren kapitalaren etekinen artean PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu ahal zaizkion etekinen bat sartu bada, integratu behar ez diren sarrera gordinen zenbatekoa artikuluko horren arabera kalkulatu behar da.

D Jarduera ekonomikoaren etekinak

Etekinaren zenbatekoa. "Jarduera benetan egitea" eremuko BAI laukian X jarri bada, errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari jarduera ekonomikoaren etekin gisa esleitu ahal zaion errentaren zenbatekoa jarriko da (gastu kengarriak kenduta, halakorik bada), "Esleipenaren %" laukian adierazitako portzentajeren arabera.

Integratu gabeko kopurua. Erakunde kideari esleitutako jarduera ekonomikoaren etekinen artean PFEZi buruzko Foru Arauan ezarritako integrazio portzentajeak aplikatu ahal zaizkien etekinak sartu badira, artikuluko horren arabera integratu beharrekoak ez diren sarrera gordinen zenbatekoa jarriko da, baldin eta kide hori Pertsona Fisikoaren Errentaren gaineko Zergaren kargapeko zergaduna bada.

Higigarrien kapitalaren etekinak.

Azpiatal hau beteko da baldin eta "Jarduera benetan egitea" eremuko EZ laukian X jarri bada, hau da, bazkide, erkide edo partaideek jarduera ekonomikoa benetan egiten ez badute.

Etekinaren zenbatekoa. Jarduera ekonomikoa benetan egiten ez duen bazkide, erkide edo partaideak erakundearen duen partaidetzaren ondorioz higigarrien kapitalaren etekin gisa jaso duen zenbatekoa jarriko da. Hala gertatzen denean, egotzitako etekina gehienez ere ekarritako kapitalaren %15 izango da.

R Jarduera ekonomikoari lotutako ondasunen ondare eta galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuetatik sortu eta errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion irabazi garbieraren zenbatekoa jarriko da.

Galeraren zenbatekoa. Jarduera ekonomikoari lotutako ondare elementuetatik sortu eta errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion galera garbieraren zenbatekoa jarriko da.

F Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren ondare irabaziak eta galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren irabazi garbieraren zenbatekoa jarriko da.

Galeraren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak ez diren galera garbieraren zenbatekoa jarriko da.

G Ondare elementuen eskualdaketen ondoriozko ondare irabaziak eta galerak

Irabaziaren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak diren irabazi garbieraren zenbatekoa jarriko da.

Galeraren zenbatekoa. Errenta-esleipenaren araubideko erakunde kideari esleitu ahal zaizkion ondare elementuen eskualdaketen ondoriozkoak diren galera garbieraren zenbatekoa jarriko da.

S Emaizta Kontablea

Errenta esleipengarria. Errenta-esleipenaren araubideko erakundeko kide guztiak Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorra) subjektu pasiboak izanez gero, esleitu ahal zaion errentaren zenbatekoa jarri behar da (Kontabilitateko emaitza + Gehikuntzak – Gutxipenak).

I/J Kenkariak (PFEZI buruzko FA edo SZI buruzko FA)

Gakoa. PFEZI buruzko Foru Arauko kenkariak aplikatzen badira I gakoa jarriko da, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko kenkariak aplikatzen badira J gakoa jarriko da.

Oinarria / Zenbatekoa. Azpigako egokietan, bazkide, jaraunse, erkide edo partaideari esleitu ahal zaizkion oinarriak edo kenkarien zenbatekoak jarriko dira.

Clave I. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Azpigakoa

- | | |
|----|---|
| 02 | 3/2004 Foru Arauko kenkariak |
| 04 | Jarduera ekonomikoetan kenkariak |
| 05 | Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkariak |
| 06 | Empresa berrietan edo osatu berrietan inbertitzeagatik kenkaria |
| 09 | Beste kenkari batzuk |

Clave J. Sozietateen gaineko Zerga

Azpigakoa

- | | |
|----|--|
| 01 | Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria |
| 02 | Jardueretan egindako inbertsioengatik kenkariak |
| 03 | 3/2004 Foru Arauko kenkariak |
| 04 | Beste kenkari batzuk |

K Erakundeak jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak

Azpigako egokietan erakundeko kideari esleitu ahal zaizkion atxikipenen eta konturako sarreren zenbatekoa jarriko dira.

- | | |
|----|---|
| 01 | Higigarrien kapitalaren etekinengatik |
| 02 | Hiriko higiezinaren errentamenduengatik |
| 03 | Jarduera ekonomikoen etekinengatik |
| 04 | Ondare irabaziengatik |
| 05 | Beste konzeptu batzuegatik |